



**A K T A**

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2003ko azaroaren 25a.

**LEKUA:** Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

**DEIALDIA:** Lehena   **HASIERA-ORDUA:** 19:00   **AMAIERA-ORDUA:** 19:50

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Mirari Arruabarrena Elizalde

**Zinegotziak**

Eneko Olariaga Arruti, Eugenio Cotado Iturain, Noemi Ostolaza Arkauz, Andoni Sarasua Oliden, Maria Elena Legarra Alfaro, M. Jose San Sebastian Aranburu, Ramon Etxeberria Aldaz, Martxiel Genoba Solaberrieta, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

**Idazkari-Kontuhartzailea**

Jon Carrera Jauregi

## Aztergai zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, ondoko bilkuretako aktak: 2003ko uztailaren 17ko ezohiko bilkurakoa, 2003ko uztailaren 28ko ohiko bilkurakoa eta 2003ko urriaren 28ko ohiko bilkurakoa.
- 2.- Behin betiko onarpena ematea, egoki bada, Ordenantza Fiskalen aldaketari. Aldaketak 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.



- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 6/2003 zenbakidun Kreditu Aldaketako Espedienteari. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kreditu gehigarriak.
- 4.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 7/2003 zenbakidun Kreditu Aldaketako Espedienteari. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kredituen transferentzia.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udaleko 2003ko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Udaleko 2003ko Enplegu Publikoaren Eskaintza.
- 7.- Onartzea, egoki bada, aldaketak egitea Orioko Udaleko 3 Administrari lanpostu barne promozioz betetzeko deialdiaren oinarrietan.
- 8.- Onartzea, egoki bada, 6 urtez luzatzea Karela Udal Kiroldegiko Kirok instalazioen gestio integralaren kontzesio administratiboa.
- 9.- Adjudikatzea, egoki bada, Karela Udal Kiroldegiko taberna-kafetegiaren ustiapena, kontzesio administratiboko erregimenean.
- 10.- Alkateak emandako dekretuaren berri ematea. Dekretuaren bidez Alkateak bere ahalmen batzuk delegatzen ditu Gobernu Batzordearen alde.
- 11.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ONDOKO BILKURETAKO AKTAK: 2003KO UZTAILAREN 17KO EZOHICO BILKURAKOA, 2003KO UZTAILAREN 28KO OHIKO BILKURAKOA ETA 2003KO URRIAREN 28KO OHIKO BILKURAKOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**ONARTZEA** ondoko bilkuretako aktak: 2003ko uztailaren 17ko ezohiko bilkurakoa, 2003ko uztailaren 28ko ohiko bilkurakoa eta 2003ko urriaren 28ko ohiko bilkurakoa.

### **2.- BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETARI. ALDAKETAK 2004KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DU ERAGINA.**



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, informazio publikoaren emaitza ikusita, eta 2003ko azaroaren 21ean egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA** Ordenantza Fiskalen aldaketari. Aldaketak 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.

Jesus Rodriguez Pousak hartzen du hitza, PSE-EE-PSOE talde politikoaren izenean eta, emandako botoa azaltzeko, adierazten du aldeko botoa eman diola Ordenantza Fiskalen aldaketari, baina bere talde politikoak beretzat hartzen duela hurrengo udalbatzarren batean proposamenen bat aurkezteko eskubidea gai jakin honi buruz: uraren eta zaborraren tasa ordaintzetik salbuestea emergentzia sozialeko laguntzak jasotzen dituzten pertsonak eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino txikiagoko pentsioa jasotzen duten pentsiodunak.

### **3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 6/2003 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEARI. KREDITU ALDAKETA HONAKO MODALITATEAN EGIN DA: KREDITU GEHIGARRIAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2003ko azaroaren 12an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2003ko aurrekontu propioari dagokion 6/2003 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 6.909 eurokoa da. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kreditu Gehigarriak.

**2.-** Espediente hori **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege arauetan ezarritakoa betez: Toki Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158. artikulua eta 150. artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

**Erakutsita dagoen lekua:** Kontuhartzailletza.



**Aztertze eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea:** hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontatzen hasita.

**Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka bozkatu zuten udalbatzarkideek.

**Inpugnatzeko arrazoiak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren arau-haustea.

**Erreklamazioak aurkezteko:** udaletxeko erregistro nagusian, bulego orduetan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

#### **4.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 7/2003 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEARI. KREDITU ALDAKETA HONAKO MODALITATEAN EGIN DA: KREDITUEN TRANSFERENTZIA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2003ko azaroaren 21ean egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2003ko aurrekontu propioari dagokion 7/2003 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 146.015,39 eurokoa da. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kredituen Transferentzia.

**2.-** Espediente hori **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege arauetan ezarritakoa betez: Toki Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158. artikulua eta 150. artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

**Erakutsita dagoen lekua:** Kontuhartzailletza.



**Aztertze eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea:** hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontaktzen hasita.

**Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka bozkatu zuten udalbatzarkideek.

**Inpugnatzeko arrazoiak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren arau-haustea.

**Erreklamazioak aurkezteko:** udaletxeko erregistro nagusian, bulego orduetan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

## **5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO 2003KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2003ko azaroaren 12an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**ONARTZEA** Orioko Udaleko 2003ko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa. Aldaketa honako hau da: hiru administrari lanpostu berri sortzea.

## **6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALEKO 2003KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2003ko azaroaren 12an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):



**ONARTZEA** Udaleko 2003ko Enplegu Publikoaren Eskaintza, hiru administrari lanpostu barne promozioz betetzeko deialdia bideratzeko.

## **7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALDAKETAK EGITEA ORIOKO UDALEKO 3 ADMINISTRARI LANPOSTU BARNE PROMOZIOZ BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRIETAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2003ko azaroaren 12an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**ONARTZEA** aldaketak egitea Orioko Udaleko 3 Administrari lanpostu barne promozioz betetzeko deialdiaren oinarrietan, indarrean dagoen ordenamendu juridikora egokitzeko. Onartutako aldaketa honako hau da: deialdiaren epaimahai kalifikatzailean HAEEko ordezkari bat izango da.

## **8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 6 URTEZ LUZATZEA KARELA UDAL KIROLDEGIKO KIROL INSTALAZIOEN GESTIO INTEGRALAREN KONTZESIO ADMINISTRATIBOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kiroleko Batzorde Informatzaileak 2003ko azaroaren 20an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [Aldeko 10 boto: Arruabarrena (EAJ), Olariaga (EAJ), Etxeberria (EAJ), Genoba (EAJ), San Sebastian (EAJ), Sarasua (EAJ), Legarra (EA), Cotado (EA), Azkue (EA) eta Rodríguez Pousa (PSE-EE). Abstentzio bat: Ostolaza (EAJ)]:

**ONARTZEA** 6 urtez luzatzea Karela Udal Kiroldegiko Kirol instalazioen gestio integralaren kontzesio administratiboa, HYDRA GESTION DEPORTIVA S/ren 2001eko azaroaren 19an izenpetu zena. Luzapena honako baldintzekin onartu da:

1) Baldintza ekonomiko-administratiboen orrian UDALAREN EKARPENA epigrafepean agertzen den diru kopurua gaur egungo egoerara egokitzea. Horrela, kiroldegia leheneko urteko emaitzak eta bigarren urte honetako orain arteko datuak aztertuta, Udalaren ekarpenak honako hauek izango dira: luzapenaren leheneko urtean 120.000 euroko ekarpena egingo du eta, ondoren, urtez urte, 6.000 eurotan gutxituko da ekarpena urtero; Udalaren ekarpenak, hortaz, hauek izango dira:



- a. 2004. urtea: 120.000 euro
- b. 2005. urtea: 114.000 euro
- c. 2006. urtea: 108.000 euro
- d. 2007. urtea: 102.000 euro
- e. 2008. urtea: 96.000 euro
- f. 2009. urtea: 90.000 euro

Instalazioaren ustiapenaren urteko emaitza HYDRA GESTION DEPORTIVA SL enpresa kontzesiodunarentzat izango da osorik. Hala ere, urteko emaitza hori 20.000 eurotik gorakoa baldin bada, hortik gorako kopuruaren % 50 kirol instalazioetan berrinbertitu beharko du.

2) Tarifak (jarduerenak, zerbitzuenak, abonamenduenak...) gaur egungo egiturarekin mantenduko dira.

3) Tarifen igoera urte osorako erabakiko da, aurreko urteko KPlaren arabera, eta pertsonal gastuek Lokal eta Ikuskizun arloko lan hitzarmenaren arabera dauzkaten igoerak ere kontuan hartuta

4) Udalak konpromisoa hartzen du kiroldegian egiten diren hainbat lan, kirol gestioaz apartekoak, enpresa kontzesiodunari enkargatzea kontsideratzeko; beti ere kontuan hartuta egoera jakin bakoitzaren ezaugarriak eta lan bakoitzaren baldintza ekonomikoak.

5) Karela kiroldegiko instalazioen gestio integralaren kontzesio administratibotik eratortzen diren obligazioak beteko direla bermatzeko, Carlos Arraiza Cenezek, HYDRA GESTION DEPORTIVA SLren izenean, konpromisoa hartzen du 60.000 euroko behin betiko garantia jartzeko Orioko Udalaren eskura, fidantza izaerarekin. Garantia horrek sei urteko luzapenaren denbora epea hartuko du, gutxienez. Garantia hori jartzeko hamar eguneko epea du, gehienez, Udalbatzarraren erabaki honen jakinarazpena jasotzen duenetik kontaktzen hasita.

6) Enpresa kontzesiodunak neurriak hartu beharko ditu, bere kostura, azken bi urteotan garbiketa dela eta sumatu diren hutsuneak, eta luzapeneko sei urteetan sor daitezkeenak, betetzeko, eta bermatu beharko du zerbitzu egokia.



## **9.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, KARELA UDAL KIROLDEGIKO TABERNA-KAFETEGIAREN USTIAPENA, KONTZESIO ADMINISTRATIBOKO ERREGIMENEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Kafetegiaren ustiapena adjudikatzeko egin den lehiaketa publikoan proposamen bakarra aurkeztu da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kiroleko batzorde informatzaileak, Lehiaketaren Kontratazio Mahai gisa eraturta, egin duen adjudikazio proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**1.-** Kamal Ziani El Quazizi **ADJUDIKATZEA** Karela Udal Kiroldegiko taberna-kafetegiaren ustiapena, kontzesio administratiboko erregimenean, Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen orrian ezarritakoaren arabera.

**2.-** Kamal Ziani El Quazizi **ESKATZEA** 2265 euroko behin-betiko bermea ordain dezan, esku dirutan edo Orioko Udalaren aldeko banku abal gisa, hartutako obligazioak beteko dituela bermatzeko. Garantia hori guztiz ordaintzeko epea hamabost lanegunekoa izango da, adjudikaziodunari erabaki honen jakinarazpena egin eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita. Garantia epea bukatzen denean itzuliko zaio diru kopuru hori adjudikaziodunari, kontratuko obligazio guztiak bete baditu.

**3.-** Adjudikazioduna behartuta dago Karela Udal Kiroldegiko taberna-kafetegia irekita edukitzen kiroldegia zabalik dagoen ordu eta egun guztietan. Behartuta dago, baita ere, taberna-kafetegia irekita edukitzen, kiroldegian kultur edo kirol jarduerak antolatzen direnean ohiko egutegi eta ordutegiz kanpo.

## **10.- ALKATEAK EMANDAKO DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETUAREN BIDEZ ALKATEAK BERE AHALMEN BATZUK DELEGATZEN DITU GOBERNU BATZORDEAREN ALDE.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Aipatutako dekretu horren bitartez, alkateak bere ahalmen batzuk delegatzen ditu Gobernu Batzordearen alde.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

## **11.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Publiko artetik herritar batzuk hartzen dute hitza, hainbat galdera planteatzeko eta udalbatzarkideen erantzuna jasotzen dute.





## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

**Udalbatzarraren bilkurako akta • 2003/11/25**

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA**

**IDAZKARIA,**